

@@@AGINDUA, 2011ko otsailaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Leioako (Bizkaia) «Leioa» Musika Kontserbatorio Profesionalari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena. @ @ @

Leioako (Bizkaia) «Leioa» Musika Kontserbatorio Profesionalak aurkeztu duen eskabidea aztertu da, non baimena eskatzen baita musika-espezialitateak gehitzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 321/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, ikastetxe pribatuei irakaskuntza artistikoak emateko baimena emateari buruzkoa (1994ko apirilaren 6ko BOE); 303/2010 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko betekizunak finkatzen dituen (2010eko apirilaren 9ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Leioako (Bizkaia) «Leioa» Musika Kontserbatorio Profesionalari baimena ematen zaio perkusioa espezialitatea irakasteko, 2011-2012 ikasturteik aurrera. Kontserbatorioren kode-zenbakia 48010706 da, Leioako Iparragirre hiribidean dago, 70. zenbakian, eta titularra, berriz, Soinu-Atadia Udal Fundazio Publikoa da.

Ikastetxe horretan espezialitate hauek emango dira: pianoa, txirula, piccoloa, biolina, biola, gitarra, klarineta, biolontxelo, tronpeta, saxofoia, oboea, akordeoia, kontrabaxua, txistua, fagota, tronpa, bonbardinoa, tuba, tronboia eta perkusioa.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, ikastetxea agindu honen bidez baimendutako espezialitateetako irakasleen titulazioari dagokionez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

